



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk 19.250 euroko isuna jarri dio Arabako Graduatu Sozialen Elkargoari, bere estatutuetan Lehiaren Defentsari buruzko Legea hausteagatik

Ebazpenak frogatutzat jo du prezio orientagarri eta gutxienekoen baremoak ezarri zirela, baita lehiaren, profesionalen ordezkapenen eta publizitatearen murrizketak ere

Bilbo, 2017ko ekainaren 29a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) ebazpen bat eman du Arabako Graduatu Sozialen Elkargoari 19.250 euroko isuna jartzeko, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua hausteagatik bere estatutuetan, debekatuta dauden eta lehiaren aurkakoak diren eginkizunei eusteagatik.

LEAk uste du Arabako Graduatu Sozialen Elkargoak bere estatutuetan mantendu zituela prezio orientagarri eta gutxienekoen baremoak, baita honako murrizketak ere: lehiarena, kanpoko elkargoetako kideen jarduera profesionalean; zerbitzuen publizitatearena; eta profesionalen ordezkapenena, bete kide batzuei emandako auzietan.

LEAk arau-hausteen erantzuletzat hartu du Elkargoa, gertakariak onartu eta estatutuak legeari egokitzeko asmoa agertu arren, zehapen-prozedura ireki zela jakin arte ez zuelako egin. Lehiaren defentsako euskal erakundeen lehenengo eskaera, estatutuak aldatzeko, 2009an izan zen, eta ez zituen estatutuak aldatu 2017ko martxoaren 8ra arte.

5.500 eta 13.750 euroko isunak

Honengatik guztiagatik, LEAk 5.500 euroko isun bat ezarri dio debekatuta dauden eta lehiaren aurkakoak diren eginkizunei eusteagatik estatutuetan. Halaber, 13.750 euroko beste isun bat ezarri dio Arabako graduatu sozialen zerbitzu profesionaletarako prezio orientagarri eta gutxienekoen baremoak onetsi, ezarri eta aplikatzeagatik.



Orobat, LEAk agindu dio Elkargoari prezio orientagarrien dokumentuaren aplikazioa bertan behera uzteko eta bere kideei (173) jakinarazteko tarifa horiek erabat deusezak direla, baita helburu berdina edo antzekoa edo eragin berdina duten jokabideak berriro ez egiteko.

Azkenik, Elkargoari agindu dio bere kide guztiei jakinarazteko ebazpena, eta hilabeteko epea eman dio isuna ordaindu eta betekizun guztiak betetzearren. Ebazpen horrek administrazio-bideari amaiera ipintzen dio. Beraz, Elkargoa ados ez badago, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar dezake EAEko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

[EBAZPENA](#)